




Zornotzako espetxea, bizidunen hilobia



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Zornotza (Bizkaia), 1939ko abuztua. Zornotzako Emakumeen Espetxe Zentrala jarri zuten abian egun El Carmelo ikastetxea dagoen eraikinean, eta Espainiako estatu osotik errejimen frankistarentzat “oso arriskutsuak” ziren emakumeak bertara eramaten hasi ziren. 1947 arte martxan egon zen kartzela honi buruzko dokumentazio ofizialik ez dago, eta agian horregatik dira ezagunagoak Saturrarango eta Durangoko emakumezkoen espetxeak. Baina horrek ez du esan nahi kartzela honek sare frankistan garrantzirik izan ez zuenik.

Orain, Ascensión Badiola historialariak zentroari buruzko lehen monografikoa argitaratu du: *Individuas peligrosas* (Txertoa, 2019). Guztira 1.200dik gora presoren izenak bildu ditu, baina benetako kopurua askoz handiagoa zen. Dokumentazio ofizialik ezean, Estatuko Aldizkari Ofizialera, hemerrotekara eta beste historialari batzuen erreferentzietara jo behar izan du, datu zehatzen bila. Eta bertan preso egondako emakumeen testigantzak erabili ditu presoek beraiek “bizidunen hilobia” esaten zioten espetxeko baldintza gogorrak jasotzeko.

Izugarrikeriak Zornotzara iritsi baino lehen ere hasten ziren. Pilar Pascual madrildarrak kontatu zuenez: “Txerriak eramaten zituzten furgoi batean sartu gintuzten, eta igotzean zera entzun genuen: Ez hurbildu horra, izkina horretan kaka egin behar izan dugu, ez geneukalako non egin!”.



EZKERREAN, EL CARMELO IKASTETXEKO FATXADA EMAKUMEEN KARTZELA GISA ERABILI ZUTEN GARAIAN. ESKUINEAN, ESPETXEKO JOSKINTZA TAILERRA; PROPAGANDARAKO EGINDAKO ARGAZKIA IZANIK, EZ DITU ERAKUSTEN BENETAKO BALDINTZA LATZAK.



EL CARMELO / PENAK LUDITZEKO PATRONATOA

“Goizean, baraurik, kazo bete ur bero ematen ziguten; Maggi botatzen ziotela esaten ziguten, baina ez zuen inolako zaporerik”, Nieves Torresen hitzetan. Elikadura baldintzak hain muturrekoak ziren, 1942an gose greba egitea erabaki zutela. Hiru egunez jan gabe egon ondoren, laugarrenean “aza eta lau patata zati” eman zizkieten.

Amalia de la Fuente Peral leondarrak, haurdunaldiaren azken egunetan eutsi ahal izateko, sukaldean lan egitea eskatu zuen eta eskaera onartu zioten: “Goizaldeko laueta jekitzen nintzen eta oinak oso gaizki izan nituen hainbeste ordu zutik emateagatik eta beroagatik (...) Behin baba kargamentu bat iritsi zen eta barruan zomorroak besterik ez zeuden”.

Elikaduraz gain, osasun eta higie arazo nabarmenak zeuden: “Mediku zerbitzurik ez zegoen”, esan zuen Teopista Bárcenak, “eta gutxieneko higienarik ez genuen; ez

zegoen dutxarik eta ganadurako aska estu luze bakarria erabil genezakeen garbitzeko”.

Ofizialki erregistratuta egon ez arren, espetxean haur txikiak ere bizi (eta hil) ziren. Amen testigantzei esker dakigu haien berri, besteak beste, Julia Manzanal zigarror-saltzaile madrildarrari esker: “40 cm zabal ziren lastairatan egiten genuen lo, bata bestearen alboan, eta haurrak tartean. Gau batez, alaba asko gaixotu zen eta Trinidad Gallego presokideak, erizaina izanik, meningitisa zela esan zidan, eta alabari agur esan behar niola. Eta, hala, Julia txikia eta egunero kolorez aldatzen zitzaizkion begi eder haiek joan egin ziren (...) Gau guztia pasa genuen monjei deika, baina, alferrik, ez ziren agertu. Goizean iritsi zirenean, hilda zegoen”.

Tomasa Cuevas komunistak hiru hitz erabili zituen Zornotzako infernua deskribatzeko: “Kaosa, pilaketa eta lastura”. ●

KATHARINA REBAY-SALISBURY



Historiaurreko biberoiak

Bavieran (Alemania) Brontze eta Burdin Aroko haurren hilobietan aurkitutako buztinezko zenbait ontzitan esne arrastoak aurkitu dituzte. Ontzitzoak 5-10 cm zabal dira eta albo batean zulo txiki bat dute. Lehenago ere uste zuten biberoi modukoak zirela, baina orain ganadu etxekotuaren esnea aurkitu izanak hipotesia berretsi du. Ikerketaren

emaitzak *Nature* aldizkarian jakinarazi dituzte, eta Bristoleko Unibertsitateko Julie Dunne ikerlariaren arabera: “Aztertutako ontziak duela 3.000 urte inguruak dira, baina 7.000 urtekoak ere badaude. Horregatik uste dugu gizakiak Neolitoan hasi zirela haurren esnealdiak laburtzen eta bularra emateari gozago uzten”. ●